


Arnas aparatuko gaixotasunek eragindako ospitaleratzeak %8,8 gehitu ziren 2018an Euskal AEn

Gainera, kirurgia anbulatorioaren esparruan, 79.241 ospitaleratze zenbatu zituzten, 2017an baino %5,4 gehiago

Guztira, 235.634 ospitalizazio erregistratu ziren 2018an Euskal AEko akutuen ospitaleetan (ez dira sartzen egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta psikiatrikoak), hau da, aurreko urtean baino %1,2 gehiago, Eustaten datuen arabera. Ospitaleratzeak kausa nagusiek jarraitu zuten izaten digestio-eritasunak, arnasketakoak eta zirkulaziokoak, zeinek oro har hartu zuten ospitaleratze guztien %38,8. 2017arekin alderatuta, nabarmenezkoa da ospitaleratzeen gorakada arnasketa-gaixotasunen ondorioz (%8,8), zirkulazio-gaixotasunen ondoriozko ospitaleratzeen igoeraren oso gaitetik (%1,3) eta baita digestio-gaixotasunen ondoriozko ospitaleratzeen aldakuntzaren oso gaitetik ere (%0,3ko jaitsiera izan zuten horiek). Gainera, kirurgia anbulatorioaren modalitatean 79.241 pertsona artatu ziren (+%5,4), eta kausa nagusia, kasu honetan, katarata-ebakuntza izan zen.

Ospitalearen titulartasunari erreparatuta, ospitaleratzeen %83,3 ospitale publikoetan erregistratu ziren, eta %16,7 pribatuetan; azken horietan, artatutako patologien ereduak aldatu egiten da, eta aparatu muskuloeskeletikoaren arazoak (%18,5) izan ziren maizen tratatu zirenak.

Euskal AEko akutuen ospitaleetan ospitaleratzeak, gaixotasun ugarienen arabera. 2018



Oinarria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ospitaleraturiko gizonen proportzioa (%50,7) emakumeenaren antzekoa (%49,3) izan bazen ere, baldin salbuesten badira artatze-kasuak erditzeagatik, haurduntzagatik eta puerperioagatik –zeinak, oro har, ez baitira osasun-arazo–, gizonen proportzioa %54,8koa izan zen, emakumeena baino ehuneko ia 10 puntu handiagoa (%45,2).

65 urte eta gehiagoko pertsonak gehiago erabiltzen dituzte ospitaleak, eta ia ospitaleratzeen erdiak dira (%49); horien artean, %44,7 80 urte eta gehiagoko pertsonenak dira, aurreko urtekoen oso antzeko zifrak.

Ospitaleratze guztietatik, digestio-aparatuko gaixotasunek eragindakoak izan ziren ohikoenak (%13,3), eta, ondoren, arnas aparatukoak (%12,8). Azken hori, 2017arekin alderatuta, %8,8 hazi da, eta bigarren tokian paratu da zirkulazio-gaixotasunekin batera (%12,7); ondoren daude tumoreak (%9,4), traumatismo eta lesioak eta, antzeko pisuarekin, aparatu muskuloeskeletikoarenak (%8,8 eta %8,7, hurrenez hurren). Haurduntza, erditze eta puerperioagatiko artatzeak %5,3 jaitsi dira 2017arekin alderatuta, hau da, ospitaleratzeen %7,4.

Emakumeen artean, amatasunarekin lotutako kasuak alde batera utzita (%15,1), lehenik eta behin, digestio-aparatuko gaixotasunak artatu ziren (%11,6), eta, ondoren, arnas aparatuko gaixotasunak (%11,3) eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (%10,5) bigarren eta hirugarren postuetan.

Gizonen artean, hiru arrazoi nagusiak bat etorri ziren emakumeenekin; hala ere, kasuen proportzioa handiagoa izan zen, eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunak eta digestio-gaixotasunak lehen postuan egon ziren (biak %14,9ekin), eta ondoren arnasketa-gaixotasunak (%14,2).

Euskal AEko akutuen ospitaleetan ospitaleratzeak, gaixotasun ugarienen eta adinaren arabera. 2018

Diagnosticiko-multzo handiak	Guztira	%	Aldakuntza-tasa % 2018/2017	Adina (%)				
				0-14	15-44	45-64	65-79	80 eta gehiago
Total	235.634	100	1,2	100	100	100	100	100
Digestio-aparatua	31.262	13,3	-0,3	9,1	10,8	16,0	14,1	12,4
Arnas-aparatua	30.130	12,8	8,8	23,4	7,3	9,1	13,0	19,7
Zirkulazio-aparatua	30.018	12,7	1,3	1,1	2,7	11,4	16,5	21,8
Tumoreak	22.201	9,4	-1,3	1,7	4,1	13,0	13,4	7,1
Traumatismo eta lesioak	20.794	8,8	-1,2	7,9	8,4	9,7	7,4	10,3
Aparatu muskuloeskeletikoa	20.454	8,7	3,0	3,2	7,4	12,2	10,5	4,7
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	17.497	7,4	-5,3	0,0	35,1	0,3	-	-

(*) Portzentajea, ospitaleratze guztien gainean

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Orobat, ospitaleratze zioak oso lotuak daude adinarekin: 0-14 urtekoen artean ospitaleratze gehienak arnasbideengatik eta jatorri perinataleko eritasunengatik izan ziren; 15-44 urtekoengan haurduntza, erditzea eta puerperioa nagusitu ziren, %35,1ekin; adinean aurrera joan ahala bestelako patologiak nabarmentzen dira: digestiokoak eta tumoreak 45-64 urte bitartekoengan, zirkulaziokoak 65 eta 79 urte bitarteko pertsonengan, eta azken horiek eta arnasketakoak 80 urte eta gehiagokoengan.

Haurduntza, erditzea eta puerperioa kanpoan utzita, ospitalizatuen batez besteko adina 62 urtekoa izan zen; 72 urtekoa gaixotasun zirkulatorioetan. Gizonen ospitaleratze batez besteko adina emakumeena baino goiztiarragoa izan zen, tumoreetan eta aparatu genitourinarioari eragiten dioten gaixotasunetan izan ezik;

alderik handiena traumatismoek eta lesioek eragindako ospitaleratzeetan aurkitu zen (54 urte; emakumeen kasuan, 67).

Ospitaleko egonaldien batez besteko iraupena 5,7 egunekoa izan zen, 2017koaren berdina; luzeenak buruko nahasmenduei dagozkie (13,9 egun), ondoren jatorri perinataleko gaixotasunak (11,5 egun) eta infekziosoak (8,7 egun).

Kataratak eta begiko gaixotasunak kirurgia anbulatorioaren %36,7 izan ziren

Kirurgia anbulatorioaren modalitatean, zeinetan ospitaleratzearen egunean bertan ebatzen diren prozesuei erantzuten baitzaie, 79.241 gertakari zenbatu ziren (2017an baino %5,4 gehiago). Begiko gaixotasunen multzoa izan zen ohikoena, artatzeen %36,7rekin, zeinetarik %88,7 ospitale publikoetan egin ziren eta %11,3 pribatuetan, eta katarata izan zen gehien tratatu zen patologia.

Bigarren lekuan aparatu muskuloeskeletikoko gaixotasunak izan ziren (%10,8), non prozeduren %56,4 ospitale pribatutan egin ziren, eta ohikoenak belauneko nahasmenduak izan ziren gizonengan eta juanikoteak emakumeengan.

Euskal AEko akutuen ospitaleetako kirurgia anbulatorioaren pazienteak, gaixotasun ugarienen eta sexuaren arabera. 2018

Diagnostiko-multzo handiak	Guztira	%	Gizonezkoak %	Emakumezkoak %
Total	79.241	100	100	100
Begiaren eta loturikoen gaixotasunak	29.081	36,7	33,8	39,3
Aparatu muskuloeskeletikoa	8.570	10,8	11,5	10,2
Digestio-aparatua	6.676	8,4	11,7	5,5
Tumoreak	6.357	8,0	6,8	9,1
Aparatu genitourinarioa	5.119	6,5	4,9	7,9
Azalaren gaixotasunak	4.872	6,1	6,3	6,0

(*) Portzentajea, artatze guztien gainean

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ohar metodologikoa

Estatuko eta nazioarteko konparagarritasunagatik, ospitaleratze-modalitatean egun 1eko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak bakarrik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira zenbatzen 0 eguneko egonaldia dutenak. Egonaldiaren iraupena kalkulatzeko da egun-kopurua bezala ospitaleratze-datatik altakora arte, kontuan izan gabe ospitaleratze edo altako orduak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62